



206. zenbakia

·APIRILA 2021·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Orokieta. Bideetako Zuzendaritzaren bisita Olako auzora. 1951.09.05. (Nafarroako Artxiboa)

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira martxoaren 31an bidalia




Mesedez

“

*Itxaropenez,
hitz bakan batzuk
esan nahi nituzke.
Ahul izan nintzen,
galdurik,
ahiturik.
Aitzitik, zorionez,
zuek eragindako
minez osaturik
indartsu,
gogotsu,
kementsu,
zoriontsu nabil.
Itxaropenez,
dizuet eskatuko
gauza bakarra:
faborez,
zoazte pikutara!* ”

Joxe Jabier Elizalde



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Esan Erran, Egun ero

Hamaika sari banatu ditu Esan Erran irratiak



▲ Gartzarongo Maria Luisa Beuntzari egokitu zitzaion Errigorako saskia

Esan Erraneko Egun Ero irratsaioak 15ERO zozketa jarri du martxan ikasturte honetan, eta honezkero 10 sari banatu dituzte. Eskualdeko ekoizle eta artisauei esker banatu dituzte sariak: Marta Perezen Loperena gazta, Carnicas Behikoaren bi txuleta, Berueteke Txaseneko Bordako sagardoa, Irantzu Legarraren Josthariko produktu sorta, besteak beste. Beste batzuetan erakundeekin batera lan egin dute sariak banatzeko, adibidez, Errigorarekin.

Izenak dioen bezala, 15 egunean behin izaten da 15ERO zozketa. Irratsaioaren elkarriketekin zerikusia duen galdera bat botatzen

dute Esan Erranetik, eta audio bidez erantzun behar da 689 033 000.



▲ Erasoko Madali Carpinterok eraman zuen Egozkueko Marta Perez Loperenaren gazta

ETXEBIZITZA PROMOZIOA

18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL KOMERTZIAL

- 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean
- Lokal komertzialak





Beheranzko joera azken urteetan, baina igoera txikia 2020an

Ultzama aldeko eskualde zabal honetan bizi diren herritarren kopurua beherantz egiten ari da azken urteetan, baina zenbait udalerritan lortu dute joera orokor hori zertxobait gelditu eta biztanle berriak irabaztea ere. INE estatistiken institutuak 2019tik 2020ra bitartean jasotako udal-errolaren datuak bildu ditugu, eta aurretik gure eskualdeko biztanle kopuruan zegoen joerarekin alderatu ditugu.

Landa eremuko herrien husteaz asko entzun dugu azken urteetan, baina baita joera horren aurrean hirira mugitzeari uko egin eta herri txikietan gelditzeko apustua egiten dutenei buruz ere. Zein izan da Imotz, Basaburua, Ultzama, Atetz, Odieta, Anue eta Lantzko biztanleriaren bilakaera, eta zein gaur egungo egoera? Bada, datu positibo batekin ekinen diogu erreportaje honi: 2020an, aurreko urtean baino 28 pertsona gehiago zeuden erroldatuak gure eskualdean, %0,68ko igoera egon zen beraz (Nafarroa mailan %1,0koa izan zen igoera, dena den). Guztira, eta INEren datuen arabera, 4.145 biztanle zituen Ultzama aldeak 2020an.

Imotzen, Ultzaman, Atetzen eta Lantzen, zertxobait gora

2019an baino zazpi biztanle gehiago kontatu ziren **Imotzen** 2020an, 430 hain zuzen (%1,65eko igoera). Azken bost urteetako joera kontuan izanda, ordea, datuek zertxobait behera egin zuten, 2015ean 432 biztanle baitzeuden erroldatuak. Adinari dagokionez, 2020an 46,56 urtetan zegoen batz besteko adina; bost urte lehenagoko datuekin alderatuta, 0,92 urte zahartu zen biztanleria Imotzen.


Ultzaman, 21 biztanlekoa izan zen igoera: 2019an 1.653 pertsona

zeuden erroldatuak, eta 2020ean, berriz, 1.674 (%1,27ko igoera). Azken bost urteei erreparatuz gero, gorako joera mantentzen da, baina txikiagoa da igoera hori: 2015ean 1.666 biztanle ziren, eta beraz, zortzi biztanle gehiago lortu ditu Ultzamak azken bost urteetan. Bitxikeria gisa, aipatuko dugu 1993ko biztanle kopuru bera kontatu zuela Ultzamak iaz: 1993an ere 1.674 ziren erroldatutako herritarrek. Adinari dagokionez, Imotzen baino zertxobait gazteagoa da batz bestekoa: 45,28 urtetan dago, duela bost urteko datuarekin alderatuta 1,15 urte zaharragoa.

Atetzek izan du biztanle kopuruaren portzentajeari begirako igoerarik handiena: 225 pertsona zeuden erroldatuak

2020an, 2019an baino hamar gehiago (%4,65eko igoera). Azken urteetako beheranzko joerari buelta eman zioten 2018an Atetzen; izan ere, 2015ean 232 biztanle baziren, 2018an 212ra jaitsi zen kopurua. Handik aurrera, ordea, goranzkoa izan da joera: bi urtetan, 13 biztanle berri dituzte erroldatuak. Adinari dagokionez, 46,85 urtetakoa da batz bestekoa, duela bost urteren paretsukoa (46,89koa zen orduan).

Atetzek izan zuen 2019tik 2020ra biztanleen hazkunde portziorik handiena





Amaitzeko, biztanle kopuruan zertxobait gora egin duen azken udalerrria **Lantz** da: 148 biztanletik 152 izatera pasatu ziren 2020ko erroldaren arabera (%2,70eko igoera). Azken bost urteetako datuak kontuan hartuta, biztanle

kopuruari eustea lortu duela esan daiteke: 151 pertsona zeuden 2015ean erroldatuak, 2020an baino pertsona bakar bat gutxiago. Adinari dagokionez, lauetatik gazteena da bataz bestekoa: 44,68 urtekoa, duela bost urte baino 1,69 urte zaharragoa.




Gorako joera izan du azken urteotan
Lantzen biztanleriak ▲


Basaburuan eta Odietan behera, Anuen aldaketarik ez

2019tik 2020rako tartean biztanle kopuruak behera egin zuen udalerrien artean daude Basaburua eta Odieta. **Basaburuan**, jaitsiera ez zen oso handia izan biztanle kopuruarekin proportzioan: 828 pertsona zeuden erroldatuak 2020an, aurreko urtean baino sei gutxiago (%0,72ko jaitsiera). Azken bost urteetako datuak kontuan hartuta ere beheranzkoa da joera; izan ere, 2015ean 859 pertsona zeuden erroldatuta. 2001etik 2011rako hamarkadan nabarmen goranzko joera egon zen Basaburuan (667 biztanletik 888ra, %33,13ko igoera), baina handik aurrera pixkanaka biztanleak galtzen joan da, etenik gabe. Adinari dagokionez, 46,81 urtekoa da bataz bestekoa, bost urte atzera baino 1,81 zaharragoa.


ULTZAMA



ATETZ




LANTZ






BASABURUA

Anue da azken hamarkadan biztanle kopuru handiena irabazi duen udalerria. Irudian, Olague ▲




Odietan ere, beheranzko joera da nagusi. 355 biztanle zeuden erroldatuak 2020an, aurreko urtean baino zazpi gutxiago. %2,01ekoa izan zen urte batetik besterako jaitsiera. 2015etik izandako eboluzioari dagokionez, berriz, hamabost biztanle galdu ditu Odietak: 370 pertsona zeuden erroldatuak urte hartan. Dena dela, 80. hamarkada bukaeratik biztanle kopurua nahiko egonkor mantendu dela esan daiteke; 1987an, adibidez, gaur egungoaren kopuru bertsua zuen, 354 biztanle zeuden erroldatuak garai hartan. Adinari begira, 44,05 urtekoa zen batz bestekoa 2020an, bost urte atzera baino 2,72 urte zaharragoa.

ODIETA



Anueren datuekin amaituko dugu erreportajea, izan ere, 2019tik 2020rako datuak antzekoak badira ere (481 pertsona erroldatuak 2020an, aurreko urtean baino pertsona bat gutxiago), joera oso positiboa izan du azken urteetan. Erroldatutako biztanle kopuruari begira, azken urteetan eskualdeko bilakaerarik onena izan du: 2015etik 2020ra bitartean, 15 biztanle gehiago lortu zituen udalerriak, %3,23koa izan zen igoera. Baina azken hamarkadako datuak kontuan edukiz gero, igoera askoz handiagoa da: 2010ean 358 biztanle bazituen, 123 biztanle gehiago lortu zituen hurrengo hamar urtetan; %34,36koa izan zen igoera epe horretan. Adinaren batz bestekoari dagokionez, 43,93koa da, 2015ean baino 1,03 zaharragoa.

ANUE





Hala bazan...

TTOTTE

Jolasean zebilela, pitzadura batean behera erori zen Ttotte. Bertan, maitagarri ilegorri batek gurari bat eska zezakeela esan zion; ukitzen zuen guztia berak nahi zuena bihurtaraz zezakeen.

"Ukitzen dudan guztia txori bihurtu dadila!"

Esan eta egin. Maitagarriak gurari horixe eman zion Ttotteri. Bere ahalmena benetakoa ote zen jakiteko irrikaz, Ttottek maitagarria bera ukitu zuen beste inor baino lehenago. Txantxangorri bihurtuta ateratzen maitagarria pitzaduratik, arin-arin.

Ttotte pozarren zegoen. Harriak hartu, airera jaurti eta txori bihurtzen ziren. Astebeteren buruan, bere guraso, adiskide eta irakasleak, txepetx, kaio eta enara bihurtu zituen. Bere anaia, hondartzan soroslea, hontz bihurtu zuen. Begiak zabal-zabalik segitzen zuen beti, ingurua zaintzen. Matematika irakaslea, berriz, loro bihurtu zuen. Etengabe errepikatzen zituen biderketa taulak. Buruan txori gehiegi zituela zioen bere izeba batek. Izeba hark txio-txio besterik ez zuen esaten aspaldi hartan: txita bihurtuta zegoen.

Pixkanaka-pixkanaka, hegatziz mukuru bete zen bere ingurua. Eskolako arbela arrano beltz bilakatu zen eta hegan ateratzen asteazken batez. Ezin zuen kalean txakurtxo bat lastandua ere egin, pelikano bihurtzen baitzen. Ttottek, txanponen ordeztan, birigarroak zeraman orain patriketan. Futbolearen ere ezin zuen jokatu, baloiari ostikada eman ordutako hura antzara bihurtzeko arriskua zegoen eta. Xabiertxo laguna, behin jolas-orduan txoriburu deitu ziona, bele bihurtarazi zuen. Nor zen orain bietan txoriburuago?

Aspergarri samarra egiten hasi zitzaion. Inguruan txoriak besterik ez zituen. Bere buruari kax-kax bi kolpe eman eta bera ere txori bihurtzea erabaki zuen. Baina

bere ahalmenak ez zuen bere buruarekin funtzionatzen. Bakar-bakarrik zegoen umea, txori artean.

Etxean asper-asper eginda zegoela, txantxangorri bat ikusi zuen lehioan. "Maitagarria! Zu al zara? Ez dut txori gehiago nahi! Nazkatu naiz bap! Gauzak berriro lehen bezala izatea nahi dut!"

Txantxangorriak, orduan, Ttotteren buru gainean jarri eta mokokada bat eman zion hantxe, tik!

Orduan esnatu zen Ttotte: ama ari zitzaion ilea lastantzen.

"Ama! Bai ondo! Ez daukazu mokorik! Eta hegorik ere ez!"

Ama harrituta zegoen Ttotterekin. Horixe ez zuela mokorik! Bera ez zen eta txori bat!

Gelako leihoan txantxangorri bat zegoen. Eta sinetsi edo ez, keinu bihurtu bat egin zion Ttotteri begi bat itxi eta irekiz.

Harkaitz Cano (Moldatua)

Hiztegia

Pitzadura: grieta

Maitagarri: hada

Gurari: deseo

Jaurti: echar

Astebeteren buruan: en una semana

Txepetx: chochín

Kaio: gaviota

Enara: golondrina

Txita: polluelo

Mukuru: repleto, abarrotado

Lastandu: acariciar

Birigarro: tordo

Patrika: bolsillo

Antzara: ganso

Txoriburu: vanidoso-a (literalmente cabeza de pájaro)

Mokokada: picotada

Bai ondo! : ¡Qué bien!



Txantxangorria ▲



Apirilaren bukaeran hasiko dira N-121-A errepideko bigarren zatiaren lanak

Nafarroako Gobernuak jakitera eman duenez, Olabe eta Lantz arteko zatiaren lanak apirilaren bukaeran hasiko dira, datozen asteetan burutuko baita obraren esleipena.

12 kilometro dira Olabetik Lantzko bidegurutzeraino, eta aurreikusten denez, Etulaingo eta Lantzko sarrerak hobetuko dituzte, bidea zabalduz eta sarreraren bidegurutzeak aldatuz. Besteak beste, sartzeko eta ateratzeko errailak ezberdinak izanen dira eta banatu egingen dituzte, eta senalizazioa argiagoa izanen da, gorriz pintatua eta argiztatuta.

Bestetik, Enderizko hegoaldeko irteerako biribilgunea ere zabalduko dute. Halaber, aurreratzeko errailak berrantolatuko dituzte, betiere kontrako norantza hartu gabe, eta metalezko barrera batek banatuta, segurtasun neurriak indartzeko.

Otsailean hasi ziren N-121-A errepidearen lanak, 2+1 deituriko errepidean bihurtuko baitute. Ezkabatik Olaberaino doan zatiarekin hasi ziren orduan, eta lanak aurreikusitako denboran doaz. Lehenengo zati hori udazkenean bukatuko dutela aurreikusten da eta 8,1 milioi euroko aurrekontua dute.

Bestalde, bereziki arriskutsua den errepide honetan segurtasuna handitzeko bi radar berri jarri dituzte martxan. Bata, Arraizko bentetan, Iruñeko norantzan, herrian sartzeko iparraldeko sarreran (25,700 kilometroan); eta, bestea, Beran. Abiadura muga 50 kilometro ordukoa da.

Segurtasun neurri gehiago eskatzeko, hain zuzen ere, mobilizazio berriak izan dira azken hilabeteetan. Martxoaren 16an, 18:00etan, Belateko tunelen parean bildu ziren hogeitaherriko alkateak eta suhiltzaileak. Minutu batzuetan errepidea moztu zuten "Arrisku handikoa, segurtasuna orain!" leloa idatzita zuen pankarta batekin.



N-121-A errepidearen bigarren zatia, Olabetik Lantzeraino



Lehen arretaren defentsan, elkarretaratzeak Jauntsaratsen

Nafarroako Osasun Plataformak deitu dituen mobilizazioetara batu dira Basaburuan. Asteazkenero, 11:00etan, Jauntsarasko Osasun Etxearen parean eginen dute elkarretaratzea.

Azken urteetan izandako murrizketen ondorioz, lehen arretak pairatu duen prekaritatea eta izurriteak larriagotu duen egoera salatzeko bilduko dira asteazkenero. Herritarren arreta hobetuko duen langile kopuruaren handitzea eta baldintzen hobekuntza eskatzen dute. Baita Osasun departamentuak Lehen Arretarako Zuzendaritza Orokorriari eskatutako plana aurkeztea ere. Abenduan aurkeztu behar zuen eta oraindik ez dago berrik.

Urrian hasi zituen elkarretaratzeak Nafarroako Osasun Plataformak eta, denbora batez gelditu ondoren, martxoan deialdiak berriz abiatu ditu Nafarroa osoan.

Jauntsaratsen martxoaren 17an izan zen lehenengo elkarretaratzea eta herritar ugari bildu zen, 35 inguru. Basadinetik, Basaburuko Adinduen Elkartetik, yoga klasea aurreratu dute bilkurara hurbildu ahal izateko eta Ernaizu kooperatibako kideek Apeztegiberriko denda itxi eginen du tarte horretan, protestara batzeko.



▲ Martxoaren 17ko elkarretaratzea, Jauntsarasko Osasun Etxean

Covid-19aren aurka txertatu dituzte 80 urtetik gorako herritarrak

Lehenengo dosia martxoaren 18an eta bigarrena apirilaren 9an jarri zieten. Guztira 180 herritar deitu zituzten txertoa hartu zezaten eta 12 herritar boluntarioak lagundu zuten antolakuntza lanetan. Batzuk kanpoan, autoei nondik sartu eta nondik atera esateko, beste batzuk barruan, txertoa jaso behar zutenei laguntzen aritu ziren arratsaldeko 3rak arte.



▲ 80 urtetik gorako 180 herritar deitu zituzten txertoa hartu zezaten

Boluntarioen artean, Jauntsaratsen urte luzez medikua izandako Arantxa Martinez topatu genuen, hunkituta: "Oso pozik nago lagundu ahal izan dudalako. Gainera, aspaldi ikusi gabe nituen basaburuarrekin egin dut topo, eta haiek eta ni emozionatu gara".

Gartzarongo Maria Luisa Beuntza ere aritu zen antolakuntza lanetan, eta esan digunez, dena ongi joan zen: "Txertatu eta gero 15 bat minutu itxaron behar dute, erreakziorik ez dutela ziurtatzeko. Emakume bakar bat artatu behar izan dute, oso urduri zegoelako, eta zorabiatu egin delako pixka bat. Baina bestela ez da ustekaberik izan".

Azkeneko herritarrei, urtarrilean eta otsailan txertatu zituztenak batu behar zaizkie. Orduan 79 herritarrek jaso zuten Covid-19aren aurkako txertoa: Osasun Etxeko eta Gizarte Zerbitzuetako langileek, eta menpekotasun handikoak eta haien zaintzaileek.



iritzia



Juan Luis Zabala

Berria

Baserria, polemika iturri oparo

2021eko martxoak 17

Polemika iturri oparo eta etengabea izan da ETB1eko Baserria saioa sare sozialetan, eta ez motibo bakarrarengatik. Hasieran, baserritarren eta kaletarren arteko bereizketaren egokitasuna jarri zuten zalantzan batzuek, aditzera emanez gaur egun bereizketa horrek ez duela oinarri errealik, ez dagoelako hainbesteko alderik batzuen eta besteen bizimoduaren artean. Ildo beretik, euskarazko reality bat egiteko agertoki moduan baserria aukeratu izanak euskara baserriarekin estuegi lotzen duen topiko zaharkitua berritzen duela aipatu zuten beste batzuek. Eta izan da saioak baserriari buruz eman duen irudia gaur egun baserria denarekin bat ez datorrela salatu duenik ere, horretan ere topiko zaharkituetan sakondu duela saioak. Zentzuzkoak iruditu zaizkit hiru ikuspegi kritiko horiek, are gehiago kontuan izanda ETB1ek aspalditik duen joera ia-ia patologiko baten ondorio eta erakusle direla.

Azken orduan beste polemika bat piztu da, lehiakide bat AEBetako Blue Lives Matter mugimendu polizia-filoaren aldeko jertsea jantzita agertu zelako joan den igandean platoko «negutegian». Kasu horretan, jertseak islatzen duen ideologiari edo ikuspegiari buruz pentsa dezakeguna gorabehera, ez legoke polemikarako inolako aitzakiarik... aurretik beste aldarrikapen batzuk zeuzkaten jantziak debekatu edo zentsuratu izan ez balira ETB1en, hala nola Altsasukoak aske eta Cabacas justizia. ETB1ek aspalditik duen beste joera ia-ia patologiko bat islatzen du auzi honek.

Polemikak aparte utzita, beste ikuspuntu batetik begiratuta interesgarria irudi zait Baserria, hainbat lekutako eta hainbat adinetako baserritarren euskara erakutsi duelako pantailan. Egiaztatu da oraindik ere —Bizkaian eta Gipuzkoan behintzat, akaso Nafarroan ere bai— baserritarren euskara kaletarrona baino berezkoagoa edo senezkoagoa dela —oro har eta salbuespen ugari izan daitekeela onartuta—, baina alde hori gero eta txikiagoa dela eta izango dela aurrerantzean, baserritar gazteenen eta kaletar gazteenen arteko aldea ez delako hain nabarmena arlo horretan, beste arlo batzuetan ere ez den bezala.

Amaitzeko, etorkizunerako proposamen apal bat EITBrentzat: zer moduz hurrengo urtean ETB2ko reality-a Euskal Herriko baserri batean egiten bada eta ETB1ekoa Karibeant?

Sutea, Arrarasko Arretxea etxeko teilatuan

Martxoaren 22ko iluntzean izan zen sutea, eta teilatuan izan zen kalterik handiena, herritarrek esan digutenez, baina hasieran uste zena baino txikiagoa, zorionez. Etxean zeuden bi lagunak onik atera ziren, nahiz eta susto handia hartu zuten herrian. Tximinian sortu zen sua eta itzaltzeko lanetan aritu ziren herritarrek.

Suhiltzaileen hiru kamioi hurbildu ziren eta Polizia Forala ere agertu zen. Poliziaren jarrera salatu nahi izan dute, izan ere, etxeratze agindua zela eta alde egiteko esan zieten laguntzen ari ziren herritarrei. Askok ez zuten agindua bete, egoeraren larritasunagatik.

Aldi berean, hausnarketa bat luzatu nahi izan digute Arrarastik, izan ere, herri guztietan badago mangerendako ur linea bat, baina askok ez zekiten nola erabili eta ez zegoela ongi zaindua konturatu ziren. Horrelakoetan laguntza handikoa da sistema hori, eta, horregatik, herri guztietan hura zaintzeko ardura hartu daitekeela proposatu dute, horrelakoetan kalteak ahalik eta txikienak izan daitezen. Mangerak eta txorrotak ongi mantentzea eta herritarrek horiek erabiltzeko ikastaroren bat jasotzea proposatzen dute, hain zuzen ere.



Arrarasko Arretxeako teilatuak su hartu zuen



Habelarte jaio da, Mendialdeko baserritarren elkarte

Martxoaren 28an aurkeztu zuten Aralarko San Migueleko Santutegi ondoko aretoan Nafarroako Mendialdeko baserritar agroekologikoen elkarte berria. Arano-Goizueta, Leitzaldea, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Basaburua-Imotz-Atezko ekoizleak bildu dira Habelarten. 28 baserritar inguru elkartu ziren sorrerako batzarrean.

Bi urte luzeko prozesuaren emaitza da elkarte jaio berria. Hasiera batean, Leitzako eta Aresoko nekazariak eta abeltzainak bildu behar zituen, baina lanketa mendialde osora zabaltzea erabaki zuten segituan.

“Besteak beste, zonalde osoan eredu horretan ari diren edo ari nahi duten baserritarrak antolatzen hasteko beharra ikusten zelako sortu da elkarte”, diote zabaldutako prentsa oharrean. Hain zuzen, baserritar txikiek egunerokotasunean dituzten zailtasunei aurre egiteko elkartzea aukera ona dela uste dute, eta ekoizpen arloan, eraldaketa prozesuan, komertzializazioan, promozioan eta kontsumitzaileekiko eta administrazioarekiko harremanetan eragitea dute asmo, besteak beste.

“Helburua nekazaritza iraunkorra bultzatzea da, eredu estentsiboan eta agroekologian oinarritutako praktikak sustatuz, prozesu eraldatzaile bezala ulertuta. Eredu hau lantzearen bidez gure etxaldean errentagarritasun ekonomikoa ez ezik, oreka soziala eta ekologikoa ere lortu nahi dugu”, nabarmendu dute oharrean. Elikadura burujabetzaren eta iraunkortasunaren klabeetan kokatzen du elkarteak bere bidea, beraz.



▲ Mendialdeko baserritar agroekologikoen elkarte jaio da

Lizar bat landatu dute Olagueko gazteek Pedro Etxarriren omenez

Duela hilabete batzuk zendu zen Olagueko (Anue) Pedro Etxarri, eta herriko gazteek omenaldi xumea egin nahi

izan diote orain. Ezkatiko San Nikolas ermitara igo eta guztien artean lizar bat landatu zuten bere oroimenez.



▲ Argazkian, ekimenera batu ziren gazteak lizarra landatu ondoren



Paleta goma eta frontenis txapelketa, bukatzeaz

Ilbeltzaren bukaeran ekin zioten Paleta Goma eta Frontenis txapelketari Latasan. Urtero bezala, Basaburuko eta Imozko Kirol Batzordeak antolatu du lehiaketa, eta aurtengoan ere bikote askok hartu dute parte. Martxoaren 26 eta 27ko asteburuan final aurrekoak jokatu ziren, baina lehen mailakoen



▲ Martxoaren 26an eta 27an jokatu zituzten final aurrekoak

partida bat apirilaren 3ra atzeratu behar izan zuten. Arizmendik eta Goñik Razkin anaien aurka jokatu dute egun horretan. Hauek izan ziren gainontzeko partiden emaitzak:

Bigarren mailan

Gurrea eta Goldarazena **30 – 28** Okiñena eta Bertiz Iraola eta Oskotz **06 – 30** Asiain eta Gaztelu

Frontenisean

Uxue eta Olaia **25 – 10** Irati Lakuntza eta Aiora Unanua

Andrea eta Laura **19 – 25** Izaskun eta Alazne

Lehen mailan

Loidi eta Beloki **30 – 27** Andueza eta Alvaro Goñi

Final aurrekoak pasatuta, Aste Santuetako oporren ondoren jokatu dira finalak.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburesak...



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



Imozko garbiketa-taldea

Otsailaren 27an, larunbatarekin, 15 bat imoztar bildu ginen Latasan inguruetako zaborra biltzeko asmoz. Eguraldia lagun, goiz ederra pasa genuen elkarrekin, ume zein heldu. ImotzEKO taldearen lehendabiziko uxaldia izan zen eta abiapuntutik gehiegi urrundu gabe, zabor dezente bildu genuen. Pintza biltzaileekin sekulako gozatua hartu genuen gainera, bai eroso!

Frontoi estalitik bi talde atera ginen: batzuk Urritzako benten aldera, eta beste batzuk Latasako geltoki aldera. Hasieran imajina genezakeena baino hurbilago gelditu ginen, topatutako zabor-kantitatea zela eta.

Polita izan zen adin-aniztasuna. Elkarlana nagusitu zen eta partaide bakoitzak bere harri-koskorra ekarri zuen. Aberasgarria iruditu zitzaigun txiki eta nagusiagoen arteko lankidetzaz, eta gogoeta interesgarriak piztu zitzaizkien umeei. Zergatik botatzen du jendeak zaborra, metro gutxira zakarrontzia egonik? Haiek dira etorkizuna, eta arront inportantea da ingurumenaren aldeko jarrerak barneratzea.

Oinezkoei jakinmina sorrarazi genien, bizikletaz edo kotxez pasatzen zirenei ere zer pentsatua eman genien... Alegia, helburu nagusia bete genuen: eredu izatea eta kontzientziak astintzea.

Plastikoa izan zen protagonista nagusia, jakina. Tamaina handiko plastikoak, baita plastiko txiki-txikiak ere, auskalo noiz botatakoak. Latasatik oraindik atera gabe, karrika eta errepide bazterretan zigarro-mutxikin franko, latak... Plazaola bidea aski garbi zegoela ematen zuen lehen begiratuan, baina bidexkatik atera eta berehala, erreka bazterrean edo soroetan, denetarik ikus zitekeen. Eta zer esanik ez autobus-geltokietan! Ikusgarria, egiatan, zenbat zaku bete genituen.

Plastiko eta edari-latez gainera, bestelako zaborra eskuratu genuen: pakak lotzeko sokak, herdoildutako lanabesak, pixez betetako boteak, ehiztarien kartutxoak, kableak, pneumatikoak, maskarillak, botilak (plastikoazkoak eta kristalezkoak),

kontserba-latak eta poteak, burniak, animalia baten eskeletoa poltsa baten barnean, konpresak eta tanpoiak, preserbatiboak, eta abar, eta abar. Nazkagarria bezain harrigarria.

Heldu diren aldietarako gogotsu gaude, bistan ez dagoen zaborra egon, badelako, nahi adina. Bestalde, lehen aldi hartan ezin eskuratutako zaborrak hantxe segitzen du, leku berean, urak edo haizeak noiz eramango. Guretzat ikasketa izan zen, jakina, beharrezko zenbait tresneria falta zitzaigula (aizturak, katiuskak...), eta datozen topaketetarako hori fintzen ahaleginduko gara.

Udaberri aldera berriz ikusiko garelakoan gaude. Baina, bitartean, zuen herrietan ere auzolanak antolatzen animatzen zaituztegu, paskualia hartu eta aspaldiko zabortegetara hurbildu, adibidez.

Eutsi horri!



ImotzEKO brigada



▲ Brigada berdea zaborra biltzen



▲ Adin guztietako jendea batu zen ekimenera



Kexu dira herritarrek quadak, motoak eta lur orotariko kotxeak mendian sartzen direlako

Ohiko aisialdia mugatuta den honetan, badirudi geroz eta gehiago jotzen dugula mendira eta landa eremura. Baina, dirudienez, ez bakarrik oinez. Gobernuko Ingurumen sailetik baieztatu digutenez, kexak gora egin dute quadak, kotxeak eta motoak mendiko bidexketan sartzen direlako. Otsailean kanpaina abiatu dute Foruzaingoak eta Basozaintza departamentuak

Gure eskualdean kexak ez dira haratago joan, ez behintzat modu ofizial batean, udaletan esan digutenez. Baina kalean, lagunaren artean eta ostatuetan askotan aipatu den arazo bat da. Dirudienez, izurritean, aisialdia mugatu denean, gehiago dira gure mendietan sartu izan diren quadak, motoak eta lur orotariko kotxeak.

Mendira oinez joaten direnendako eragozpena izaten dira. Sortzen duten soinua gogorra eta desatsegina izaten da. Eta, gainera, arriskutsua dela uste dute askok. Baina, jardueraren ondorioak ez dituzte pertsonen soilik pairatzen, basozaintza zerbitzutik esan digutenez ekosistemarendako ere kalte handiak eragiten dituzte. Horregatik, Foruzaingotik gogoratzen dutenez, debekatuta dago.

Izurritean, gehiago

Arazoa ez da berria, eta ez da gure eskualdean bakarrik ematen. Nafarroa osoan sortu dira kexak, Gobernuko Ingurumen eta Basozaintza sailetik baieztatu digutenez: "Nafarroako hegoaldean ohiko jarduera da, baina azkeneko urteetan erkidego osoan zabaldu da eta gora egin duela sumatu dugu. Pasa zen urtearekin ezin dugu konparaziorik egin, tartean konfinamendua izan zelako, baina udalek jasotako kexek gora egin dute. Jarduera hau oso gutxi ikusten zen tokietatik iritsi zaizkigu kexak".

Atetzen, Basaburuan eta Ultzaman herritarren artean komentatu izan da kontua. Atezko udaletxean aritzen den Iban Baztanek horrela esan zigun: "Azken urtean motoak eta antzekoak mendian gero eta

gehiago ibiltzen direla sumatu dugu, eta hori esan digute inguruko hainbat abeltzainek ere. Ez dakit zer egin daitekeen... bakoitzak bere afizioak ditu, baina uste dugu ez dela erabilerarik egokiena, ez baita batere atsegina, eta bideak hondatu egiten baitituzte".

Kanpaina bat abian

Nafarroako Gobernutik kanpainia jarri dute abian otsailaren bukaeran, Foruzaingoaren eta Basozaintza zerbitzuaren eskutik. Helburua, nagusiki, baimenduta zer dagoen eta zer ez argitzeko informazioa ematea izanen da.

Nafarroako Gobernuko Ingurumen sailetik adierazi digutenez: "Ibilgailu horiek erabiltzen dituztenen artean ezagutza handitzea espero da, baimendutako eta debekatutako jarduerak eta kontrolak gabekoek sortzen dituzten kalteen inguruan. Isunak zenbatekoak izan daitezkeen ezagututa, debekatuta



Belateko zohikaztegia, Nafarroan hobekien kontserbatzen dena da. Aldaketa klimatikoa moteltzeko oso garrantzitsua da eta aldi berean igelen etxea ere bai.

**Nafarroako
Gobernuak
baieztatuta, gora
egin dute udalen
kexek, eta jarduera
hau existitzen ez
zen tokietatik
iritsi zaizkie**



dauden jarduerak behera eginen dutela uste da”.

Basaburuko basozaina den Xabi Azpirozek esaten digunez, ez dute kanpainian parte hartuko, baina urte osoan egiten dute hori: “Alarma piztu da, bai, herritarren artean. Ezer gutxi egin daitekeen egoera honetan gehiago etortzen dira. Hemen ez dugu kanpainian parte hartu baina hori da gure funtzioetako bat, eta beti esaten diegu ezin dela hori egin eta isunak ere jartzen dira”.

Foruzaingoaren oharrak dioenez, hain zuzen ere, “beharrezkoa den kasuetan isuna jarriko da”. Momentuz, urtarrilean, otsailean eta martxoaren hasieran lau ibilgailu salatu dituzte Basozaintza zerbitzutik eta hamar Foruzaingotik.

36/1994 Foru Dekretuak arautzen ditu motordun ibilgailuekin egiten diren jarduerak: “Debekatuta dago hauek zelaian barna ibiltzea, errepideetatik at edo bi metro baino gutxiagoko landa bideetan (...) Halaber, ezin da ibili hurrengo gunetan: erreserba integraletan, natur erreserbetan, aisirako natur eremuetan, abelbideetan, Donejakue Bidean, galtzada historikoetan, Plazaola ibilbidean, animalia basatiak babesteko

eremuetan, ibaietan eta ibai ertzetan, aintziretan, urtegiatan edo hezeguneetan”.

Ingurumenean kalteak

Eragozpenak ez dira oinezkoendako bakarrik. Kalteak larriagoak izan daitezke gure basoetako biztanleendako, hau da, animalientako eta landareendako.

Kalte nagusia higadurak ekartzen du: “Alde batetik, higadura zuzena, hau da, gurgilek lurrian sortzen dutena; eta, bestetik, zeharkako higadura, ura gurgilek egindako bideetatik doanean. Horrek lurra babesik gabe uzten du. Jarduera hauek, gainera, landareak txikitu eta haien hazkuntza atzeratzen dute. Eta, noski, animaliek ere pairatzen dituzte kalte ugari: haien habitatan suntsiketa, animalien harrapaketak, eta ibilgailuek eta soinuak sortzen dizkieten eragozpenak”, oroitarazi nahi du Foruzaingoak.

Xabi Azpiroz basozainak ere animalientakodueneragina azaldu digu: “Haiek ez dira konturatzen baina ondorio kaltegarriak ekartzen ditu ingurumenean, adibidez, putzuetan askotan sartzen dira eta han neguan igelak izaten dira”.



Basozainen laguntzarekin jarri du abian Nafarroako Gobernuak informazio kanpainia



Ibilgailuek lurzorua higatzen dute eta horrek kalteak sortzen ditu landarean

Ultzamako Udalak ez du kontzejuen kexa ofizialik jaso, baina gogorarazi nahi dute debekatutako jarduera bat dela eta horregatik isunak jartzen direla. Gainera, oinezkoendako bideak errespetatzeko eskatzen dute. Aldi berean, izurriteak sortutako mugengatik gora egin duen jarduera izanik, modak berriaz behera egitea espero dute.

Kanpaina abiatu dute Foruzaingotik eta Basozaintzatik. Debekuen inguruan informatzeko eta, behar izanez gero, isunak jartzeko



Zapaburuak Amati basoan. Xabi Azpiroz basozainak azaltzen duen bezala putzuetan bizi diren igelendako kaltegarriak dira ibilgailuak







Ongi etorri Zarrantza

“Pozik gaude, aldaketa erabatekoa izan den arren”

Elena Zubieta eta Juan Mari Yaben urteak aritu dira etxe bila, landa eremuko hainbat herritan, eta, azkenean, Zarrantzko Etxeberriko Bordan aurkitu dute bilatzen zutena. Irurtzungoa da Yaben, eta horregatik eta lanarengatik ongi ezagutzen ditu Imozko, Basaburuko eta Lekunberriko inguruak, kamioiarekin aritzen baitzen. Nekazal teknikaria den Zubieta, Mutiloakoa, herri bat izatetik geroz eta urrunago ikusten du bere jaioterria. Horregatik, ez zuten bi alabak hazteko toki egokitzat jotzen. Nagusiak, Annek, lau urte beteko ditu maiatzean, txikiak, Eiderrek, lau hilabete besterik ez ditu. Elenak erantzun ditu gure galderak, aita Annerekin zegoen bitartean.

• Zer dela eta etorri zineten Zarrantza?

Pisu batean bizi ginen Mutiloan, baina betidanik gustatu izan zaigu herria. Juan Mari Irurtzungoa da, eta horregatik ezagutzen genuen Imotz. Inguru hauek gustukoak genituen, eta etortzeko aukera atera zitzaigun. Aldaketa erabatekoa izan da, baina pozik gaude. Izurrite erdian harrapatu gintuen obrak, baina irailean ia bukatua genuen eta orduan etorri ginen.

• Zaila al da horrelako herri txikietan etxea aurkitzea?

Ahoz aho zabaltzen dira eskaintzak, eta ez da erreza horien berri izatea, saltzen duena ezagutu behar duzu. Eskualde honetan ez dago etxe asko, eta eskaintzak ez dira ikusten, ez saltzeko eta ezta alokatzeko ere. Urteak generamatzan bilatzen, nahi genuenarekin topatu ginen arte. Isolatuta zegoen eta lurrak zituen etxe bat bilatzen genuen, eta beraz, are zailagoa zen aurkitzen. Pena da, etxe bila dagoen jendea ezagutzen baitugu.

• Herri txikia da Zarrantz, ezagutu dituzue herritarrak?

Bai, auzokideak ezagutu ditugu, baina egia esan, ez ditugu asko! (barreak). Ez gara jendea ezagutzeko garai egokienean etorri, ezin zara

besteen etxeetan sartu, eta neguak ere ez du laguntzen kalean egoteko edo gehiegi ateratzeko. Ea orain eguraldi hobea datorrenean... Batez ere paseoan doan jendea ezagutu dugu, Erasoko jendea; eta ikastetxeko jendea, Jauntsaratsen ikasten baitu Annek, Oihanzabal eskolan.

• Lasaitasuna bilatzen zenuten?

Bai, Annerengatik batez ere, lasterka egiteko eta kalean lasai egoteko aukera izan dezan. Bereziki garaiotan, hiri batean haztea ez da egokiena... jendez gainezka daude parkeak, eta nahiz eta etxe ondoan egon, hiri batean umeak ezin dituzu bakarrik utzi. Juan Mari


Irurtzungoa da, eta Mutiloa ere, duela urte batzuk behintzat, herri bat zen, baina orain ia-ia Iruñea bihurtu da, eta aspaldi egin nahi genuen handik alde.

• Tesia aurkeztu zenuen otsailean, zeri buruzkoa egin duzu?

Hidrologiaren inguruko tesia da. Ni nekazaritza teknikaria naiz eta lurren higaduraren inguruko ikerketa egin dut. Hain zuzen ere, hemen ondoan dagoen behatoki batean egiten genuen lan, badira hainbat arro experimental Nafarroan, haietako bat Oskotzen. Askotan joaten ginen bertara Unibertsitatetik tesian lanean genbiltzala, beraz, etxean bezala nago.



Elena Zubieta, azaroan jaio zen Eider txikia besoetan; ondoan, Juan Maria Yaben eta, besoetan, lau urteko Anne.



Hazien eta tokiko ezagutzen inguruko lanketa abian

Martxoaren 8aren harira, 'Haziak, zaintzak eta tokiko ezagutza' izeneko ekimena antolatu zuen Atetzen Irelarre elkarteak, Cederna Garalurrekin, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Arrea agroekologia elkarterekin elkarlanean. Arrakasta handia izan zuen hitzaldi-tailerrak, eta dinamikarekin jarraitzea erabaki dute apirilera begira.

Pandemiaren eraginez, ia urtebete ekimenik antolatu gabe zeraman Atezko Irelarre elkarteak, baina martxoaren 8aren bueltan berriz ere martxan jartzeko erabakia hartu zuten kideek. Martxoaren 3an hitzaldi eta tailer berezia egin zuten Beuntzako Ostatuan, eta ingurumenarekin lotutako hainbat gai landu zituzten bertan: lurraren inguruan ditugun ezagutzez, haziez, zaintzari buruz eta beste hainbat kontuz aritu ziren bertan bildutako emakumeak, Arrea agroekologia elkarteak gidatuta.

"Espero baino arrakasta handiagoa izan zuen ekimenak, 25 bat lagun bildu ginen Beuntzako Ostatuan, eta gainera, ez Atezkoak bakarrik: inguruko beste udalerrietako emakumeak ere gerturatu ziren, eta elkar ezagutzeko parada izan genuen", azaltzen zuten Irelarre elkarteko Virginia Ihabenek eta Edurne Azpirozek Esan Erran irratan egindako elkarriketan.



Emakumeak izan dira bereziki haziak belaunaldiz belaunaldi mantendu dituztenak ▲

Teoria eta praktika uztartuz

Saioaren lehen zatian ingurumenaz aritu ziren hizketan, eta baliabide naturalak nola ustiatzen ditugun hausnartzea izan zuten helburu: "Esnatzen garenetik gauean oheratzen gareneraino etengabe erabiltzen ditugu naturako baliabideak: ura eskuak garbitzeko, janzteko arropa... askotan, gainera, konturatu ere ez gara egiten zenbateraino behar ditugun horiek gure eguneroko jardunean. Horren inguruan kontzientzia piztea izan zen lehen ariketa", kontatzen zuten.

Parte-hartzaileak gaian kokatu eta berotzeko ariketa teoriko horren ondoren bi ariketa praktikoko proposatu zituzten dinamizatzaileek, jendearen parte-hartzea eta esperientzia trukaketa bultzatzeko. "Ariketa bat egin genuen baratzean nolako lanak egiten diren eta horiek nork egiten dituen aztertzeko. Horretan, desberdintasunak ikusten ziren etxe batetik bestera", zioten.

Dena den, etxe gehienetan emakumeak izan dira hazien zaintzaz bereziki arduratu direnak, eta baita horien inguruko ezagutzak belaunaldiz belaunaldi transmititzeaz ere. Horri balioa eman eta historikoki emakumeek bete duten paper garrantzitsua ere nabarmendu nahi izan zuten Beuntzako saioan. "Egia da emakumeen lanari esker mantendu direla etxe askotan haziak", aipatzen zuten biek.

• Apirilaren 21ean, dinamikaren bigarren saioa

Hurbildutakoak gustura egon zirela eta gaiak interesa pizten duela ikusita, aurrerabegira ekimenarekin jarraitzea erabaki dute Irelarreko kideek. Apirilaren 21ean izanen da hurrengo zita; lurralde-mapa bat osatzeko elkartuko dira bigarren saio horretan. "Saio horretan lurraren erabilpenak ezagutzeko batuko gara, mendiko komunalak nola erabiltzen ziren, zertarako, etxez etxe nola banatzen ziren... guzti horretaz hitz egiteko eta ezagutza hori guztia biltzeko izanen da bigarren ekimena", adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek. Herritarrei bertara hurbiltzeko eta parte hartzeko dei egin diete.

Beuntzako Ostatuan elkartu ziren 25 emakume inguru ▼





Gerra gure alderdian (IV)

Imotz Errepublikaren kontra, frontean hil ziren soldaduak

IMOTZ

Imotz herri nahasi samarra zen, oso nahasia ez esatearren. Zatitua zegoen jendea. Aspalditik zetorren zatiketa eta nahasmena, gutxienez azken gerra karlistatik (1873-1876) lehenagotik ez bada. Imotzen gehiengo handia zen eskuina, betitik, baina beren artean baziren liskarrak eta ezinikusiak. Idazkaria berria etorri zenean, 1935. urtearen hasieran ere bai.

Azken hauteskundeetako emaitzak

1936ko otsaileko hauteskundeak eskuinak, "Bloque de derechas" zeritzanak aise irabazi zituen:

Eskuineko blokea: Bost kandidatuk....
...396na boto bakoitzak.

Nazionalistak: Kandidatu
bakarrak.....79 boto.

Ezkerrekoak: Bost kandidatuk
11na boto bakoitzak

Eskuinak irabazi ez, garbitu egin zituen gainerakoak; nagusitasuna erabatekoa.

.....
Esteban Etxekonea, **Iriartekoa** ▼



1936KO GERRA, UZTAILAREN 18-19A.

Boluntarioak

Aipatu duguna aipatu dugula, hala ere, kontua da Imotz ez zela askorik nabarmendu boluntarioak biltzeko orduan. Lehen egunetan bederen. Eta hori karlismoak indar puxka bat bazuelarik: esate baterako, han-hemenka gelditzen ziren karlista zenbait aipatzearren, Azpiroztarrak Etxalekun, Oskotzen Lakuntzatarak, Muskitzen Garbisutarrak eta Goldaratzen Dindekoak, beste batzuen artean. Hotz xamarra zen egoera.

Inon berotasunik sumatu bazen boluntario joateko Oskotzen izan zen, boluntario andana izan zen, bederatzi familietakoak ikusi izan ditugu.

Eta hurrengoak Muskitzen, hiru familietakoak bai baitziren: Migelenekoak, Martienekoak eta Urtasun Pagototarrak.

Etxalekun oso-oso boluntario gutxi, sei bat. Hori bai, nabarmentzekoa

da Lontxo Aldaregia Arruitz, Mikelenekoa, 42 urtetan boluntario joan zena. Hau baino zaharragorik ba ote dugu gure alderdian?

Goldaratzen Dinde zenak, Don Jaime deitzen zuten karlista amorratuak ere ez zuen segitzaile handirik topatu, ahaideak ere ez baitzituen bildu boluntario joateko.

Eta gainerako herrietan ere ez zen berotasun handirik izan. Zer esanik ez Latasan, non boluntario bakarra topatu dugun eta hori falangistetan.

Soldadu hilez zenbait xehetasun

Beheiti jarri dugun zerrendan dituzue hil ziren soldadu guzien xehetasun batzuk. Horietako guziek badute beren historia eta merezi lukete aipamen luzeagorik, baina ezinezkoa zaigu, luze samar aterako litzatekeelako idatzi hau. Hala ere, bakarren batzuen zertzeladaren bat jarri gabe ezin utzi:

Etxalekun lau hil ziren eta horietako bi, etxe berekoak ziren, Domikenekoak: Martin Sarasa Latasa eta Victorio Sasa Exposito.



Jesus Gorriti, **Joanekoa** ▲



Juan Legarra, **Maiatzenekoa** ▲

Miguel Lakuntza, **Eskaregikoa** (Arotza) ▲

Azken hau inklusatik ekarria zuten eta gerra hasi zenean, etxean konpontzen ez eta Dorrotozarrean zen bere ahaide batzuekin. 1936ko abuztuaren 6an alistatu eta 19an hil, 13 egun iraun zuen. Gizajoak 38 urte zituen, mutilzahartua eta lanbidez oihan-mutila. Ikaragarria zait Victorioren historia. Nonbait errenditu behar, eta gerrara joatea otu zitzaion, dirudienez, ia zahartutakoan; edo norbaitek bultzatu ote zuen zorigaiztoko izanen zitzaion bidera?

Etxalekun beste bat aipatzekotan, Juan Angel Elizabeitia Alegre aipatuko nuke, eskolan ibili gabea, beti ahuntzain, eta hala ere handitutakoan irakurtzen ikasi behar zuela eta ikasi zuena Eguzkitza maistruarekin. Borondate handiko mutikoa omen zen. Erreuxenean bizi zen, familia pobre batean. Eta soldadu joan eta kabo egin zuten. Ez da gutxi etxalekuar analfabetoa izan zen honentzat.

Etxalekuko gerra hasi eta abuztuaren 6an apuntatutako hiru boluntariok utzi zuten bizia.

Oskotzen, denak dira aipagarriak, baina bat aipatzekotan Blas Ilarregi Landa azpimarratuko dugu, Barrantxeko semea. Extremaduran 1939ko otsailaren 2an zauritu eta egun berean hil zen. Barrantxeko

Francisco Gerendiain, **Oskozko Dindekoa** ▲

ume bakarra, gerra aurrettoan hil baitzitzaion anaia 18 urtetan peritonitis batengatik. Barrantxea etxaldean ama Margarita eta aitaxi Bautista Landa Lautre maistru zaharra bakar-bakarrik gelditu ziren.

Eta bestea Miguel Lakuntza Gerendiain. Hau soldadu boluntario joan zen, baina gerra hasi baino 4-5 hilabete lehenago. Afrikan Erregularretan apuntatua, gerra hasi, Penintsulara pasatu eta iparraldean, Asturiasen hain zuen, hil zen 20 urtetan.

Ez ziren denak frontean tiroz hiltzen.

Jose Zia Gartzaron, Muskizko Itsasonekoak, Gipuzkoako Saturrarango plaian itota galdu zuen bizia. 2 hilabete zeramatzan soldadu, ia-ia borrokan aritu gabekoa.

Eta Zarranzko Roman Marin Mata, Etxeberriko bordan bizi zena, Teruelen, Albarracinen Errepublikako soldaduen esku jausi zen 1937ko uztailean, eta ondoren "rojo"tan aritu zen borrokan. Bere mandoak ostiko batez hankaz gora bota eta hil egin zen, alajaina!

Hau ere, Victorio Sasa bezala, inklusakoa. Inklusako franko ikusi izan dugu boluntario. Zergatik ote?



Txurdan

Alejandro, ▲
Zaragozatik zinkezko zerraldoan ekarri zuten

Hiztegia

Liskarra: haserre

Emaitza: resultado

Zeritzanak: izena zutenak

Zertzelada: xehetasuna, detalle

Otu: gogoratu (Bizkai aldeko hitza da)

Erreuxenean: Errebesenea.

Mikeltxoneari itsatsia den etxea

Barrantxea: Kooperatiba egin zenean, etxe hau erabili zuten behitegitarako.

Jausi: erori

Baratzezaina: hortelano.

Suharra: ferviente, ardoroso

Oroitzapena: recuerdo.

Benetakoa: zinezkoa=siñeskoa

Jarraitzailea: segidor

Zorte: suerte

Gatazkatsua: conflictivo

Atzerriraturik: exiliaturik



Imotz

IZENA	1. DEITURA	2. DEITURA	HERRIA	ZEIN ETXETAKOA ZEN	SORTEGUNA	HERIOTZ EGUNA	ZENBAT URTEAN HILA	REEN-PLAZOA	NON ARIZEN BORROKAN
ESTEBAN	ECHECONEA	GUERACENEA	Eraso	Iriarte	06-09-11	9/5/37	26	1932	Armada
FRANCISCO	JAUNARENA	JAUNARENA	Eraso	Mattikoneko borda	14-05-12	Desagertua	?	1933	Armada
ALEJANDRO	ARANGUREN	JUANCORENA	Etxaleku	Joalapitzenea	06-12-16	22/2/38	21	1937	Reketea
MARTIN	SARASA	LATASA	Etxaleku	Domikanea	11-06-09	24/3/38	33	1930	Armada
VICTORIO	SASA	EXPOSITO	Etxaleku	Domikanea	23-12-1898	19/8/36	38	1919	Reketea
JUAN ANGEL	ELIZABEITIA	ALEGRE	Etxaleku	Erreuxenea	24-01-10	11/7/38	28	1931	Reketea
JOSE	CIA	GARZARON	Muskitz	Itsasonea	07-10-15	21/4/37	21	1936	Armada
MIGUEL	LACUNZA	GUERENDIAIN	Oskotz	Eskarregia (Arotzaren etxea)	09-02-16	22/2/37	21	1937	Armada
FRANCISCO	GUERENDIAIN	BELOQUI	Oskotz	Dindea	02-02-07	18/6/37	30	1928	Reketea
BLAS	ILARREGUI	LANDA	Oskotz	Barrantxea	06-02-19	2/2/39	19	1940	Armada
VICTORIO	IRISARRI	TELLECHEA	Oskotz	Perutxeneko Mais-tarretxea	23-12-16	4/4/38	21	1937	Falanjea
JUAN	LEGARRA	LEGARRA	Goldaratz	Maiatzenea	20-10-11	24/5/37	25	1932	Armada
JESÚS	GORRITI	GOLDARAZ	Goldaratz	Joanea	24-12-10	20/7/37	26	1931	Armada
MIGUEL ANTONIO	ECHEVERRIA	ZARRANZ	Zarrantz	Garaikoetxea	12-10-09	16/7/38	29	1930	Armada
ROMAN	MARÍN	MATA	Zarrantz	Etxeberriko borda	15-09-16	Desagertua	?	1937	Armada
JOSE	MUTUBERRIA	GOLDARAZ	Zarrantz	Luixenea	14-07-09	6/1/38	28	1930	Armada

Etxe bateko zoritxarrak

Isidro Ilarregi Goñi, aroztegiarra eta Oskozko Margarita Landa Beuntza, alaba bakarra zena, Oskotza ezkondu ziren **Barrantxeko** etxalde handira, andregaiaren etxera, jakina.

Ezkondu eta bi ume izan zituzten eta gero senar-emazteak konpontzen ez eta hala esan omen zuen Isidrok Ameriketara joateko bidea hartu zuenean:

-Nik jakinen dut Margaritaren berri, baina berak nire berririk ez du izanen.

Ez dakigu benetan hala izan zen, baina Isidro ez zela itzuli bai.

Eta seme zaharrena, Juan Bautista Ilarregi Landa, 18 urtetan hil zen peritonitis batez, gerra aurrettoan,

1935eko abuztuaren 27an, 18 urtetan.

Eta urte bat baino lehen Espainiako gerra zibila gertatu zen. Etxe honetako zoritxarrak handitzeko etorri zen, dirudienez, gerra. Blasi, seme gazteenari, gerrara joatea tokatu 1938ko otsailean eta 1939ko otsailaren 2an hil zen Extremadurako frontean, 19 urtetan.

Dena dela, etxe bateko bi senide bakarren heriotzei beste bat ere erantsi beharko genioke: osaba kaputxino baten asasinatzea. Osaba hori Lorenzo Ilarregi Goñi zen, Aroztegin jaioa 1880. urtean. Kaputxino hau, "Fray Gabriel Arostegui" bezala ezaguna, legoa eta baratzezaina izan zen. 1936.

urtean, 46 urte zituenean, El Pardoko komentuan zegoelarik, izan zuen gertakari latza.

Miliziano anarkistak komentua hartu eta gora-behera batzuen ondoren gaurkoan kontatuko ez ditugunak Lorenzoren akabera etorri zen, 20 egun geroago. Tarte guzi horretan baratzezain segitu zuen milizianoendako. Eta hala, gau batez, afal ondorean, haietako batek esan zion ateratzeko kanpora eta atetik atera orduko, beste hiru milizianok beren eskopetekin garbitu zuten. Heriotza bidegabea eta izan daitekeen miserableena eman zioten. Zakur bati ere ematen ez zaion heriotza eman zioten!

Zer nolako nahigabeak eta tragediak ekarri zituen azken gerra zibilak!

Gure errelatoa biltzeko helburua izan duten dokumental bi

Juan Luis Napalek eta Virginia Senosianek zuzendu dituzte Florecica eta Lacalle dokumentalak. Biak mundua gelditu den 2020. urtean estreinatutakoak, biek Nafarroako memoria historikoaren zati bat kontatzen dute. Erantzun zoragarria jaso dute filmek, eta gure eskualdean oraindik ikusteko aukerarik bada. Ultzamatik eta Basaburutik pasatu ondoren, apirilean Erasoko zinekluban, Zaparen etxolan, ikusi ahalko dira. Juan Luis Napalekin hitz egin dugu.

• Zergatik kontatu nahi izan duzue Lacalleren ibilbidea?

Gure belaunaldian hainbat gauzengatik ezagutu dugu Joxe Lacalle. Alde batetik, Jarautan zuen tabernarengatik, orain Aitzina taberna dena. Bestetik, Eginen eta Euskaldunon Egunkarian argazkilari moduan egin zuen lanarengatik. Garai horietan oraingo sare sozialen papera bete zuen. Bera han ez bazegoen, ekintza edo manifestazio bat ez zen existitzen.

• Zer esan zuen ideia proposatu zeniotenean?

Urduri jarri zen (barreak), «baina nik hau merezi ote dut?» esaten zuen. Baina oso pertsona irekia da, eta asko lagundu digu. Hunkitu egin zen eta mila aldiz eman zizkigun eskerrak.



▲ Josefina Lamberto, Maravillas Lambertoren ahizpa eta Florecica dokumentaleko protagonista

• Nola osatzen da dokumentala?

Hiru atal ditu. Hasierakoan bere lehenengo urteak laburbiltzen ditu, bere haurtzaroa. Etxaurin jaio zen eta bertan bizi izan zen 14 urte bete zituen arte. Bigarren atala, gaur egungo Aitzina tabernan grabatua, Lacalle tabernaren ingurukoek osatzen dute. Beste batekin batera, ikurrina jartzen lehena izan zen. Horregatik izan zituzten faxisten erasoak. Orduan kontatzen digu bonba jarri ziotenekoa, baita bertan egin zituzten lehenengo kontzertuak ere, edo nola sartu zen heroina. Hirugarrenean, bere argazkilari lana jasotzen da.

• Dokumentala Agoitzen estreinatu zenuten abenduan, nolakoa izan da harrera?

Oso hunkigarria izan zen, Joxe gurekin egon zen gainera. Omenaldi txiki bat egin zioten sorpresaz, aurreku bat dantzatu zion Haizea Unanuek Igor Martinezekin txistuan. Ondoren, hau ere sorpresaz, Leizeak taldearen kontzertua izan genuen, akustikoan. Iruñeko jende asko hurbildu zen, bere tabernako bezeroak izandakoak, lan munduan ezagututakoak... Jende helduari oroitzapen asko ekartzen dizkio dokumentalak, baina, aldi berean, jende gazteari ikasketa asko: oso polita izan zen adin oso ezberdinetako jendea zegoelako, eta denak hunkitu ziren.

Florecica, Josefina Lambertoren historia

Testigantza horiek nolabait bildu behar direla uste dugu. Berdin zait liburu batean, dokumental batean, irratian egindako elkarriketa batean... baina biltzen ez badira, gure kontakizuna galdu egingen da. Lacallek eta Florecicak kontatzen dizkigutenak oso gertaera ezberdinak dira, baina modu batera edo bestera, biek sufritu zuten errepresioa, eta ziur nago gaur egun gazteek ere sufritzen dutela. Gazte horiek ere egun batean kontatu beharko dituzte. Larragako udalak ezetza eman digu, non eta Larragan! Baina memoria historikoan lan egiten dutenekin ari gara hizketan eta berdin zaigu plazan edo kalean, baina proiektatuko dugu.

Lacalleren erakusketa: Latasako Biltegian.

Florecica Zaparen Etxolan, Erason, maiatzaren 29an.



Frantses azienda

Azienda. Azienda bada, ongarria ere izaten da ba! Eta abelgorria denean zer esanik ez. Behi bakar batek asko jaten du eta gorotza ere leher egiten du.

Irain larria da norbaitengatik **azienda** dela esaten badugu. Edo gizonen batengatik jende ongarria dela esaten bada zer esanik ez (nire bizitza guzian gizonez entzun izan dut **ongarria**, inoiz ez dut entzun emakume batengatik)

Azienda deitzen zaio astapotro eta moralik gabekoari, guzien gainetik bere ona bilatu lagun hurkoaren kaltetan bada ere (Besteren kaltea bost) Jende ongarria ere antzeko gauza da.

Soroan, belar berde eta gozo eta handian azienda sartzen bada, gustura jan bai, baina dena zapaldu, kakaztatu eta hondatu egiten du. Aprobetxatzen duena baino askoz gehiago izaten da galtzera botatzen duena. Hala da eta hala izanen da. Zarrastelkeria da. Hori txukuntasunaren kontrako zerbait da.

Eta belar berdean sartu beharrean alfalan sartzen bada azienda, orduan eta amorratuago jaten du, neurririk gabe, datorkion kaltean pentsatu gabe –nola pentsatuko du azienda baldin bada?–

Azienda kontua dakart gaur, ttikia nintzeneko oroitzapena dut gogoan. **Domikenekoek** behiak eta idiak eraman zituzten alor ibilitako soro batera. Alor ibilitakoa eta alfalfa toki izandako batera, oraindik ere belar artean alfalfa puxkak ateratzen ziren dermiora. Eta, jakina, aziendak alfalfa punta horiek harrapazka jan. Zer eginen zuen ba, horrelako bazka gozoa izatean!

Gero etxera ekarri eta zenbait behi haizatu eta larri! Batez ere idi bat zen oso gaizki jarri zena. Egoeraren jakitun, herriko jendea bildu, eta

zerbait egin nahirik kanpora atera zuten idi tripota handia, momentutik momentura hanpatzen ari zena. Sokekin lotuta larrainera atera eta hor bildu zen jendea inguruan. Eta herriko jakintsuenak hor hasi ziren puntzoia sartu edo ez sartu. Puntzoia sartuz gero egin zulotik haizea botako zuen, baina urdaila zulatzeak ere beldurra ematen. Zer egin eztabaidatzen ari ziren. Halako batean, idia ezin sosegaturik, bere indar guziez bazterrak inarrosiz eta lokarriak askatuz, jendearen ia gainetik lasterka, ziztu bizian, indar gogorrean, etxerako bidea hartu eta beheitian bere lekura sartu zen. Jainkoari eskerrak ez zuen inor azpian harrapatu. Eta han momentu batetik bestera lehertu zen. Hala galdu zen Domikeneko idia, inoiz ere atzenduko ez dudana. Ikaragarria izan zen idi haren heriotza.

Belar berde-berdea, alfalfa puntak... bazka ederra aziendarentzat!!!

Madriilen ere bada belar berde gozoa, frantses aziendarentzat aproposa. Hortaz, asteburu oro etortzen omen da bazkatzera, aziendaren gisan, lehertzeko zorian jarri artio, kalte guzien gainetik. Alfalfa punta batzuegatik, dena zapaldu, dena zikindu, kakaztatu eta hondatu. Parisen hegazkina hartu eta mozkortzera Madrila alajaina! Nola arranoak haragira, hala edarira mozkor arrailak!

Frantses azienda horrek ez daki zer den txukuntasuna, zer den gizatasuna eta zer den kuxidadea. Oraindik ez daki zer kalte dakarren hegazkinak. Ez daki zer den klima aldaketa, eta ez daki deus! Azienda baita, jende ongarria baita.

Eta edaria dela eta, gaur ardo gozo freskoa edanen dugu hegazkinik hartu beharrik gabe. Inori kalterik egin gabe. Biba gure ardo frexko edangarri bikaina!

Eta esaera zaharrak dioena: **ongi esanak gogoan hartu eta gaizki esanak barkatu!** Izan ongi.



Txurdan

Hiztegia

Gaurkoan hiztegia luze xamarra izanen dugu. Nekazal hitzak galduxeak baititugu.

Azienda: behi, ardi, ahuntz, zerri...

Abelgorri: behi, idi, zezenak.

Gorotza: kaka (Hitz hau hemen ere erabiltzen da)

Astapotroa: bestia

Kakaztatu=kakaztu: hankapean ibilita zikindu.

Hondatu: zerbait galtzera bota.

Zarrastelkeria: despilfarro (Hitz hau nik uste erdi asmatua dela)

Alfalfa: alpalpa jartzen du hiztegian. Luzerna ere esaten diote zenbait tokitan.

Alor ibilitakoa, baratze ibilitakoa... (Esaera jatorra. Inola ere ez alor bezala ibili zutena eta horrelakoak)

Dermioa: alorra, soroa...

Bazka: Azienden jatekoa, belarra, ahotza...

Haizatu: hinchar

Hanpatu: hinchar

Urdaila: estomago

Lokarria: atadura

Beheitia: etxearen beheko solairua (Hemengo hitza da. Ez dator hiztegian)

Mozkor arraila: mozkor hutsa, mozkor ikaragarria.

Kuxidadea: orden, aseoa.

Hegazkina: avion



Erraza eta garaikoa

Izurritearengatik hilabeteak eman ditu itxita Orgi jatetxeak, Lizason. Martxoan berriz ere ireki berri du, eta hara hurbildu gara errezeta berri baten bila. Mikel Odriozola da Orgi jatetxeko arduraduna, eta garaiko produktuak izanik, zainzuri fresko goxoak martxoko perretxikoekin nola prestatu azaldu digu.

OSAGIAK: BI
PERTSONARENDAKO

Zainzuriak: 12

Marzuelus: 100 gr.

Aurratza gorringoak: bi

Soja saltsa:
gorringoak estaltzeko adina

Rukula:
gutxi, dekoratzeko bakarrik

Baratxuriak:
perretxikoekin frijitzeko

Oliba olio pixka bat

▼ Mikel Odriozolak prestatutako zainzuriak



• PAUSOAK:

1) **Zainzuriak zuritu.** Hobe da gehiegi zuritzea, gutxi zuritzea baino, bestela gogorrak eta iletsuak gelditzen dira. Gutxienez bi geruza zuritu.

2) **Zainzuriak egosi.** Ura, gatza eta azukrea erabiliko dugu horretarako. Ur litro bakoitzeko, zazpi gramo gatz; eta hiru gramo eta erdi azukre botako ditugu lapikoan. Azukreak garraztasuna kentzen dio. Denbora, bakoitzaren gustuaren arabera: tenteagoak nahiago badira, denbora gutxiago beharko dute. Orain hasierako zainzuriak ez dira oso lodiak eta zortzi bat minuturekin, nahikoa.

3) **Arrautza gorringo saltsa egin.** Marinazioa eginen dugu soja saltsarekin. Arrautza gorringoak zuringotik banandu eta gorringoak soja saltsarekin estali edalontzi batean. Utzi hor ordu eta erdi. Honekin arrautza gorringoa gogortzen da, testura aldatzen du, eta saltsa krematsu bat lortuko dugu horrela. Soja saltsa kendu behar diogu arrautza gorringoa irabiatu baino lehen. Arrautza zaporea izango du baina sojak bizitasuna emango dio.

4) **Perretxikoak.** Garai honetakoak diren Marzuelusak aukeratu ditugu, baina edozein erabili daiteke. Marzuelusen berezitasun bat da gordinik jan daitezkeela. Odriozolari horrekin jolastea gustatzen zaio, zati gordinek aroma ematen diote platerari, eta sukaldatutakoekin batera, testura ezberdina ere emanen diote errezetari. Politena gordeko dugu gordinik, xerratuta, bukaeran botatzeko. Besteak xehetu eta zartaginean frijituko ditugu baratxuriarekin. Baratxuri gehiegi ez bota, bestela perretxikoari zaporea kenduko dio. Ura askatu eta ur hori loditzen den arte egingo ditugu zartaginean. Bota gatz pixka bat.

5) **Zerbitzatu.** Zainzuriak jarri lehenengo eta gaineratik bota arrautza gorringoen saltsa, ongi nahasita. Ondoren sukaldatutako perretxikoak, zainzuriaren gainean. Orain, gordinik utzi dugun marzuelusa xerra finetan moztu eta gaineratik jarri. Eta, bukatzeko, rukula edo nahi dugun belarra, pixka bat, dekoratzeko.



Bolada onean, eskuz banakako txapelketari begira

Sasoi betean dabil Peio Etxeberria Zenozko (Ultzama) pilotari gaztea. 2017an debutatu zuenetik pausoz pauso eta pixkanaka joan da onenen artean bere lekua irabazten. Txapelketetatik kanpoko partida ugari jokatu ditu aurten, eta emaitza ezin hobeak lortu ditu: 15 partidetatik 10etan irabazle suertatu da. Orain, eskuz banakako txapelketarako prestatzen ari da.

Bolada oso onean zabiltza azken hilabeteetan, ezta?

Bai, beno, partida dezente irabazi ditut azken aldian. Bolada ona izan nuen urte hasieran, 11 partidatik 8 irabazi nituen; horren ondoren lau porrot etorri ziren, baina aurreko larunbatean berriz irabaztea lortu nuen. Egia da orokorrean urte polita izaten ari dela niretzat, batez ere jokatzeko aukera izan dugulako; hori da garrantzitsuena niretzat momentu honetan. Pena da publikorik gabe jokatzeko ari garelako, sumatzen da jendearen falta frontoian, baina tira.

Emaitzekin pozik, beraz?

Bai, bai, emaitza txukunak dira eta pozik nago, baina egia da hauek boladak izaten direla askotan: bolada onean zabiltzanean oso ongi, baina gero txarrak ere etortzen dira, eta aurrera jarraitu behar. Horrela da kirol hau.

Binakako txapelketan ez duzu parte hartu, zertarako ari zara prestatzen momentu honetan?

Maiatz inguruan eskuz banakako txapelketa hasiko da, eta horretarako prestatzen ari gara, poliki-poliki. Horixe da niretzat garrantzitsuena, txapelketa horretara ongi iristeko nire burua nahikoa prestatzea. Prestatzaileekin ari naiz prestakuntza fisikoa egiten, eta frontoian ere hamabostero edo astean behin sartzen gara eskuz banaka entrenatzeko.

Eta, momentuz nola ikusten duzu zure burua txapelketa horri begira?

Eskuz banakakoa jokatzeko gogoz nago. Txapelketa polita da, eta oso garrantzitsua, gainera. Horregatik, motibatuta nago, ahal den hobekien prestatzen. Ea momentu onean harrapatzen nauen txapelketak, zeren, esaten nuen bezala, bolada onak partida jokatzeko momentuan harrapatu behar zaitu. Oraindik ia bi hilabete falta dira, eta denetatik pasa daiteke bitartean: bolada onak, txarrak...



Kantxan gozatzen ari dela dio ultzamarrak ▲

Pandemiak asko aldatu al du pilotarien jarduna?

Entrenamendu aldetik gutxi aldatu zaigu. Batez ere partidetak giroa aldatu du: kirolean jendea hor egotea, haien berotasuna, oso garrantzitsua da. Motibazio hori faltan sumatu dut. BBaina, lehen esan bezala, pozik egon gaitzke, astebururo frontoian jokatzeko aukera izateagatik eta gure lanarekin jarraitu ahal izan dugulako.

Eskuz banakako txapelketatik harago, beste erronkarik baduzu buruan?

Asterokoan zentratzekoa naiz ni, entrenamenduetan eta egunerokoan. Orain eta hemen gertatzen den horretan dut burua, alferrik da gerokoarekin bueltaka aritzea. Egia da edozein pilotariren helburu nagusia eskuz banakakoa irabaztea dela, baina niri oraintxe gehien arduratzen nauena kantxan disfrutatzea da. Batzuetan ez da erraza izaten, baina momentu honetan asko ari naiz gozatzen, eta beraz, horrela jarraitu nahi nuke. Hori dut erronka.

“
Kantxan gozatzen ari naiz azken aldian, eta horrela jarraitu nahi nuke
”



ekoaholkuak

“Maskota exotikoak? Ez, eskerrik asko”

Paradoxa dirudien arren, egun, espezie inbaditzaileak aipatzea edota entzutea ez zaigu arrotza egiten. Geroz eta ezagunagoak dira ezpela jan eta desagerrarazten ari den tximeleta (Cydalima sp.), edota hemengo erleari kalte egiten dion liztor asiarrak (Vespa velutina), besteak beste.

Hau gertatzearen arrazoiak galdetuz gero, globalizazioa izango da ziurrenik jasoko dugun erantzun nagusia. Ez zaio ez, arrazoirik faltako erantzunari; gizakion eta materialen joan-etorri eroan, nahi ditugunek eta aurreikusi gabekoak ere bidaiatzen baitute.

Hala ere, pasaporte hartuta gure etxeetara bidaiatzen duenik ere bada, bai. Naturatik urruntzen ari garen heinean, gure etxeetara natura sartzeko joera hirietatik herrietara ere zabaldu baita. Ondorioz, edozein etxetan dordokak ikus ditzakegu, dendetan saltzen

dituzten Floridako apoarmatuak edota arrain koloretsuak, besteak beste. Eta zer? Galdetuko du batek baino gehiagok...

Batetik, kontuan izan behar da animalia horiek bere jatorrizko lurraldeetan animalia basatiak direla eta bere salerosketak, besteak beste, batzuetan espezie bera galzorian jartzen duela.

Bestetik, sarritan, animalia horiek handitzen diren heinean, ez ditugu etxean nahi izaten eta aske uztea aukera onena dela uste dugu. Horrelakoetan hemengo erreka, ibaietan... askatzen ditugu. Dordokaren kasuan, esaterako, gure ibaietan dauden europar apoarmatuari kalte egiten dio, gaixotasunak transmitituz eta bizitokian konpetentzia handia eginez (bertakoa baino handiagoa eta indartsuagoa da, eta populazioak kaltetzen ari da). Gauza bera gerta daiteke eta gertatzen ari da hainbat

arrain edo bestelako espezie exotiko inbaditzaileekin.

Beraz, etxean animaliarik sartu nahi baduzue ongi pentsatu zein eta zertarako. Azkenean animaliarik sartzen baduzu edo dagoeneko baldin baduzu, etxetik ateratzea pentsatzen duzunean dei ezazu 112ra bere bila etor daitezen, Ilundaingo Basafauna Oneratzeko Zentrora eraman eta beste etxe bat bilatuko diote gure ekosistemak kaltetu gabe.

 **Lurra**



▲ Liztor asiaticoren kabia

Zorionak Zorionak !



Zorionak
Oinatz, Irigo
eta Maddi!



Zorionak, Fermin!



Zorionak Malen!



Zorionak Urko!



Pilotaz, liburutegiko azken nobedadeetan

La increíble historia de la pelota vasca, liburutegia eskuratu duen azkeneko liburuen artean dago, eta hilabete honetan liburuazainak ekarri digun gomendioa da. Gainera, antzerkia eta ipuin kontaketa itzuli dira Ostiral Kulturaletara.

Euskal pilotaren historia izugarria

Dena dago liburutetan, Vainica Doble taldeak abesti hartan esaten zuen bezala. Eta hemen normalean fikzioa -eleberriak, haur literatura, komikiak- aipatzen eta gomendatzen baditugu ere, gaur kirolarekin eta kirolaren historiarekin lotutako entsegu batez hitz egingo dugu.

La increíble historia de la pelota vasca du izenburua liburutegira azken erosketan ekarri dugun liburu batek. **Santiago Lesmes**ek, egileak, urteak eman ditu artxiboetan ikertzen eta pilotaren munduko hainbat pertsona elkarriketatzen, lan entziklopediko hau idazteko. Bertan, pilotaren jatorriaz, modalitateez, artean izan duen irudikapenez, emakume pilotariez... hitz egiten digu, mila argazki eta berrehun ilustrazio baino gehiagorekin lagunduta.

Kapitulu harrigarri eta dibertigarrienetako bat erronka eta apustuena da, pilota munduarekin ezinbestean lotuta daudenak. Eta apustuei lotuta, tranpak eta pasadizoak, dibertigarriak batzuetan eta tragikoak besteetan (zenbat baserri galdu ote ziren burugabeko apustuetan?). Adibidez, jokalariek batek beste baten aurka egiten dituen apustuez hitz egiten digu; hankak lotuta egindakoa, edo pertsona bat *a caballito* eramanez, edo txakur bat oinean lotuta, edo sorbalda gainean golde batekin.

Azken kasu honetan, desabantaila dirudiena mesedegarri bihurtu zen, jokalariek horrek pilota jotzen zuen bakoitzean aurkariak makurtu egin beharra baitzuen, golde-hostoarekin burua moztu ez ziezaion. Liburutegian dugun beste liburu batean, *Nafarrancho*, Jose Luis Larrionena, apustu harrigarri horiei guztiei buruz hitz egiten da, eta, bereziki, apustuen bitxikeriagatik eta jokalarien handitasunagatik ezagun egin zen leku bati buruz: Iruñeko Mañuetako frontoiaz.

Liburuaren beste atal aipagarri bat euskal pilotak artearekin, literaturarekin, pinturarekin eta abarrekin duen harremanari buruzkoa da. Azken kasu horretan ezagunak dira euskal margolari batzuen margolanak, hala nola Aurelio Arteta edo Gerardo Lizarraga iruindarrarenak (egunotan, hain zuzen ere, erakusketa interesgarri bat dago Nafarroako Museoa, artista ezezagun hori aldarrikatzen duena); edo *Ramuntcho* (Pierre Loti) bezalako eleberriak, baina Holliwoodeko artistei buruzko aipamenak eta filmak ere badira.

Euskal pilotaren historia harrigarria da benetan, bere orrialdeetan errege eta apaiz pilotariek desfilatzen dute, eta erremonete eta zesta-punta bezalako modalitateen zesta-gerrako arma gisa erabilia izan zela esaten zaigu (izan ere, guardia

zibilaren txosten fantastikoren bat Kataluniako istilu batzuetan saski puntatxoaren presentzia aipatzea ere iritsi zen), edo Euskal Herritik urrun dauden Jai-Alaiak zerrendatzen dira: Manila, El Cairo, Shangai...

Liburu zirraragarria da, zalantzarik gabe. Vainica Doble esaldira itzuliz, dena dago liburutetan, eta liburu honek, hain zuzen ere, ez du kirolaz bakarrik hitz egiten, historiak, soziologiak eta feminismoak (badira hainbat orrialde emakume raketistek eskainiak, urte askoan, XX. mendean, kirol honetako profesionalak izan zirenak eta frontoiak publikoz bete zituztenak) ere hitz egiten du.



gerrado Lizarragaren koadro bat
(Nafarroako Museoa)



Ostiral kulturalak

Apirilean berreskuratu ditugu Gizarte Etxean azken hilabeteotan egin ezin izan ditugun bi jarduera: antzerkia eta haurrendako ipuin kontaketa. Gainera, apirilaren 23an liburuaren eguna da, eta liburu baten aurkezpenarekin ospatuko dugu. Erakusketak, dokumentalak... ere baditugu.

Hau da, ostiralez ostiral, programazioa:

Apirilaren 9an: Transformatzen dokumentalaren emanaldia. Pertsona transexualei buruzkoa, Naizen elkarteko familien testigantzak biltzen ditu.

Apirilaren 16an: Mariaje superproducciones-en eskutik **¿Quién anda ahí? antzezlanaz** gozatuko dugu. Hau da argudioa: Mamu bikote bat antzokian bizitzera sartu da,

egunerokotasuna dibertigarria eginez. Inork ez dituela ikusten uste dute, baina zerbaitek huts egin du, eta Rebecak eta Albertek dituzten sekretuez goza dezakegu gure besaulkitik. Antzezlan ikaragarriak eskaintzeko entseatzan dute, beren garaiko aktorerik onenak direla pentsatuz.

Apirilaren 23an: Liburuaren egunean bertan **Mikel Sotok Suak pizten direnean liburua** aurkeztuko digu Irati Jimenez idazlearen laguntzaz. Urtetan editore lanetan aritu ostean, bere lehen poemario honetan kontzientzia politikoaren iratzartzea, borroka-urteak, atxilotze, tortura eta kartzelaren esperientziak kontatzen dizkigu, pasioz bezainbesteko zilegitasunez, belaunaldi baten ametsak eta porrotak erretratatu.

Apirilaren 30ean: Esan dugun bezala, **ipuin kontaketak** itzultiko dira Larraintzarko Bentara, kasu honetan **Ventura Ruizekin**. Hau da proposatzen diguna: "Batuetan gauzak ez dira diruditen bezalakoak. Arretaz begiratu behar dugu xehetasun guztiak ongi aztertzeke. Zatozte ipuin batuetan murgiltzera eta ohikoa denari bertze modu batez ikusteko begirada bat ematera".

Eta adi! Kasu honetan ekimena **18:00etan** izango da (normalean 19:00etan dira) eta haur bakoitza (5 urtetik aurrerakoak) heldu batekin bakarrik joan ahal izango da.

Erakusketei dagokienez, hilabete honetan bi izango dira. Martxoan, tamalez, arazo tekniko batengatik ezin izan genuen **Palestinako emakumeei buruzko erakusteka** birtuala eskaini, baina **apirilaren 16ra arte** gurean izanen da azkenean, eta gainera apirilaren 9an, 18:00etatik-19:00etara, eta apirilaren 13an 18:00etatik 20:00etara, bisita gidatuak izango ditugu (Javier Gorraizen eskutik; Javierrek aurreratu zigun zerbait martxoan ikusi genuen Bar-Bahar pelikulan).

Eta horretaz aparte, **sexu-orientazio desberdinei buruzko argazki-erakusketa** izanen dugu, Nafarroako Hiesaren Aurkako Batzordeak antolatuta, Gizarte etxeko sarreran eta liburutegian banatuta.

On egin!

 **Patxi Irurzun**
Ultzamako liburuazaina



¿Quién anda ahí obraren kartela



Mikel Soto

2021eko otsaila

2021eko otsailean gure alderdian izan diren jaiotzak eta heriotzak

Sortzeak:

ULTZAMA Arraitz

Enara Leon Izko, otsailaren 26an sortua.
Gurasoak: Arkaitz eta Onintza.



▲ Enara etorri da Arraitza

“ Zorionak gurasoei ”

Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Ramon Juanbeltz Garmendia,
Mitxitoneko semea; otsailaren 20an
hil zen, 87 urtetan.



▲ Ramon Juanbeltz

Gartzaron

Juan Tomas Elkano Gerendiain,
Albireneko nagusia; otsailaren 9an
hil zen.



▲ Tomas Elkano

IMOTZ Etxaleku

Lorenzo Lazkotz Legarra, otsailaren
27an hil zen, 73 urtetan. **Marijoaneko**
nagusia.



▲ Lorenzo, ehiztaria, bere zakurrekin

Urritza

Maria Josefa Felicitas Satrustegi
Arrarats, otsailaren 10ean hil zen,
90 urtetan. **Mugertzaren etxeko**
etxekoandrea.



▲ Felicitas Satrustegi

ULTZAMA Urritzola

Antonio Eritze Etsain, otsailaren 7an
hil zen. **Larrainpea** etxeko nagusia.



▲ Antonio Eritze Etsain

“ Zuen maitasuna,
gelditzen zaiguna. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



ESAN ERRAN IRRATIKO PROGRAMAZIOA

2020-2021 denboraldia

ordua	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
07-08:30	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina	NAIZ magazina
08:30-10	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala	Metropoli forala		
10-11	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz		
11-13:30	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Faktoria + Goizak gaur Albistegia	Musika	Soinugela
13:30-14:30	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Lur eta Murmur / Paperezko itsasoa	
14:30-15:30	Reggae Fever	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Beste bat	Bertsoinka	Beranduegi (Argia podcast)
15:30-16	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika
16-18	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea	Zebrabidea		
18-19	Hiru Kortxea	Kultur kuboa	Gramofono	Piperpolis	Kolpez kolpe		
19-20		Musika	Musika	Musika			
20-21	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO	EGUN ERO kantuz	Bidasoa Attack	Berria FM/ Dunbala
21-22	Erro ta Berri	Zuria Beltzez	Mestibull	Pentsatu ez sinistu / Ithaka ukatuz	Haus of beats	Musika	Booktegi
22-07	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika

- ESAN ERRAN IRRATIA:** Egun Ero magazina, Egun Ero Kantuz saio berezia eta Esan Erraneko musika
- ARROSA SAREKO IRRATIAK:** Naiz Irratia, Xorroxin, Bilbo Hiria Irratia, Hala Bedi, Txapa Irratia, Radiokultura, 97 Irratia eta Arraio Irratia
- EUSKADI IRRATIA**
- EUSKALERRIA IRRATIA:** Metropoli Forala
- BESTEAK....:** Booktegi.eus-eko irakurketak eta Berria.eus-eko Berria FM